Gaia: 07/2026

ULIAZPIKO LANGILEAK FIDELIZAZIO TXARTELEN ERABILERAREN INGURUKO KEXARI BURUZKO EBAZPENA

I.- KONTSULTA

2026ko ekainaren 27an, salaketen kanal anonimoaren bidez, kexa bat jaso zen ULIAZPIko langileen artean errotutako (itxurazko) praktika bati buruz: zentroko langileek bazkide pertsonalaren txartelak erabiltzen dituzte ULIAZPIrako supermerkatuetan erosketak egiteko edo ULIAZPIko erabiltzaileei arropa erosteko, eta erosketa horren onurak ez dira erabiltzailearentzat, langilearentzat baizik.

Kexa aurkeztu duen pertsonak uste duenez praktika hori ez dela etikoa, Erakundearen Etika Batzordearen iritzia eskatzen du horri buruz.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen

Asunto 07/2026

RESOLUCIÓN SOBRE UNA QUEJA CON RELACIÓN A LA UTILIZACIÓN DE TARJETAS DE FIDELIZACIÓN DEL PERSONAL TRABAJADOR DE ULIAZPI

I.- CONSULTA

El 27 de junio del 2026 se recibió, a través del canal anónimo de denuncias, una queja sobre una (aparente) práctica arraigada entre el personal de ULIAZPI: las personas trabajadoras del centro utilizan sus tarjetas de socio personal al realizar compras en los supermercados para ULIAZPI o al comprar ropa a los usuarios de ULIAZPI, siendo los beneficios de esta compra no para el usuario, sino para el trabajador.

Al entender la persona que presenta la queja que esta práctica no es ética, requiere opinión de la Comisión de Ética Institucional al respecto.

II.- NORMAS DE APLICACIÓN

1.- Por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 1 de marzo del 2016 se aprobó el Sistema de Integridad Institucional de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de su sector público (SII), con el que se quiere afianzar la ética pública y la ejemplaridad como señas de identidad de la Institución.

En el marco de dicho Sistema, se han aprobado sucesivamente diferentes

Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK) .

Códigos de conducta: por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 1 de marzo del 2016, el Código de Conducta y Buenas Prácticas de los miembros de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de los altos cargos públicos y personal asimilado de la Administración Foral de Gipuzkoa y de las entidades de su sector público (CCCP); por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral del 5 de septiembre de 2017, el Código de Conducta y Marco de Integridad Institucional aplicable a la contratación pública (CCC); por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral del 7 de noviembre de 2017, el Código Ético y de Buena Gestión del Empleo Público foral de Gipuzkoa (CCEP); por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 2 de octubre del 2018, el Código de conducta y Marco de Integridad aplicable a Ayudas y Subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de su sector público (CCAS); por Decreto Foral 13/2022, de 13 de septiembre, el Código de Conducta aplicable a los grupos de interés que interactúan con la Diputación Foral de Gipuzkoa y su sector público (CCGI); y por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 10 de enero del 2023, el Código Ético para la utilización de los datos y la inteligencia artificial en la Diputación Foral de Gipuzkoa y en el resto de entidades que forman parte del sector público foral (CDIA).

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren

2.- Tanto el SII como los respectivos Códigos de conducta establecen que será la Comisión de Ética Institucional (CEI), cuya organización, procedimiento y funcionamiento se regula en el Decreto

antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

Foral 10/2022, de 3 de mayo, el órgano de máxima garantía y quien conozca los asuntos relativos a su aplicación, correspondiéndole tramitar y resolver las quejas y denuncias recibidas sobre el incumplimiento de los valores, principios y normas de conducta establecidos en los diferentes instrumentos de desarrollo del Sistema de Integridad Institucional.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Gai honetan kexa bat aurkeztu da ULIAZPIren zentroarekin lotuta.

Kexa hirugarren baten gainekoa denez, maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak, gaiak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteari buruzkoak, 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki, uztailaren 7an ULIAZPIko arduradunei helarazi zitzaien jasotako kexa, informazioa emateko eta egoki iritzitako gogoetak adierazi eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko, eta, aldi berean, EEB honek beharrezkotzat jo zituen galdera batzuk egin ziren, gaia konpondu ahal izateko. Ildo horretatik zentroak uztailaren 7an bertan idazki bat bidali zuen bere gogoetekin.

2.- Gai honetan, agerian jartzen da ULIAZPIko langileen artean errotuta legokeen praktika bat, eta salatzaileak uste du EZSn ezarritakoaren aurkakoa izan daitekeela.

III. VALORACIÓN DE LA COMISIÓN DE ÉTICA INSTITUCIONAL

1.- En el presente asunto se presenta una queja con relación al centro de ULIAZPI.

Dado que la queja recae sobre un tercero, siguiendo el procedimiento establecido en el artículo 9 del Decreto Foral 10/2022, de 3 de mayo, relativo a la tramitación, resolución y notificación de los asuntos, el 7 de julio se trasladó a las personas responsables de ULIAZPI la queja recibida a fin de informarles y garantizar su derecho a poder manifestar y argumentar las consideraciones oportunas, a la vez que se realizaban algunas preguntas que esta CEI consideró necesarias para poder resolver el asunto. En este sentido, el centro remitió el mismo 7 de julio un escrito con sus consideraciones.

2.- En el presente asunto, se pone de manifiesto una práctica que al parecer estaría arraigada entre el personal de ULIAZPI y que la persona denunciante considera potencialmente contraria a lo establecido en el SII.

Pertsonak adierazi duenez, ULIAZPIko langileek bazkide pertsonalaren txartela (BM, Springfield, etab.) erabiltzen dute ULIAZPIrako supermerkatuetan erosketak egiteko edo ULIAZPIko erabiltzaileei arropa erosteko. Erosketa horren onurak ez dira erabiltzailearentzat, langilearentzat baizik. Pertsona horren arabera, komenigarria litzateke bazkide-txartelak egoiliarren izenean egitea, irabaziak beraientzat izan daitezen, eta ez erabiltzaileen diruarekin erosten denaren onura langileek eskura dezaten. Halaber, adierazi du hori egiaztagarria dela, tiketak zentroko Zerbitzu Zentraletan baitaude.

Según señala la persona, las personas trabajadoras de ULIAZPI utilizan su tarjeta de socio personal (BM, Springfield, etc.) al realizar compras en los supermercados para ULIAZPI o al comprar ropa a los usuarios de ULIAZPI, siendo los beneficios de esta compra no para el usuario, sino para la persona trabajadora. Según esta persona, sería deseable que se les hiciera tarjetas de socio a nombre de los residentes para que los beneficios fueran para ellos mismos y no que el beneficio de lo que se compra con el dinero de los usuarios sea adquirido por las personas trabajadoras. Señala también, que esto es comprobable ya que los tickets se encuentran en los Servicios Centrales del centro.

Bere ustez, praktika hori ez da etikoa, erabiltzaileen interesen aurkakoa izateaz gain GFAren irudiari kalte larria egiten dio. Horregatik, EEB honen iritzia eskatzen du, kasua balitz, praktika horiek bertan behera utz zitzaten.

Considera que esta práctica no es ética, además de ser contraria a los intereses de los usuarios y dañar seriamente la imagen de la DFG. Por ello solicita opinión de esta CEI para que, en su cao, cesen dichas prácticas.

3.- ULIAZPIko arduradunek adierazten dutenez, salbuespenen bat egon daitekeen arren, ULIAZPIn bizi diren pertsonek ez dute dendek eskaintzen duten fideltasun-txartelik.

3- Las personas responsables de ULIAZPI, por su parte, señalan que, aunque puede haber alguna excepción, las personas residentes en ULIAZPI no disponen del tipo de tarjeta de fidelidad que ofrecen las tiendas.

BM supermerkatuaren kasuan, ULIAZPIK UVESCO taldearena den Coloniales Barbed enpresari erosten dio janaria, baina ULIAZPIK ez du BM txartelik. Talde batzuetan, afaria edo bazkaria prestatu ohi da jarduera gisa, eta, horretarako,

En el caso del supermercado BM, aunque ULIAZPI compra comida a la empresa Coloniales Barbed, propiedad del grupo UVESCO, ULIAZPI no dispone de la tarjeta BM. En algunos grupos se suele preparar la cena o comida como actividad

supermerkatu batean erosten da janaria, eskudirutan (ULIAZPIren kutxatik).

y para ello la comida se compra en un supermercado en metálico (de la caja de ULIAZPI).

Zentroko erabiltzaileentzako erosketei dagokienez, familiarekin adostutako lekuan egiten da (normalean familiak askatasun osoa ematen du edonon erosteko) ULIAZPIk eskudirutan uzten dien diruarekin (gero erabiltzailearen kontutik bideratzen da zorpetzea) eta kate horretako txartelik duten galdetzen zaienean eurena aurkezten dute onura pertsonala lortzeko.

En cuanto a las compras para los usuarios del centro, se realiza en el lugar acordado con la familia (habitualmente la familia da total libertad para comprar en cualquier lugar) con el dinero que ULIAZPI les deja en efectivo (luego desde la cuenta del usuario se canaliza el endeudamiento) y cuando se les pregunta si tienen tarjeta de esa cadena presentan la suya para obtener un beneficio personal.

4.- Gai honetan, zalantzan jartzen da zentroko langileek beren fidelizazio-txartel pertsonalak zentroarentzako edo erabiltzaileentzako erosketetarako erabiltzea etikoa ote den; izan ere, horrela, txartel hori erabiltzeagatik lortutako onurak langilearentzat dira. Gogora dezagun bazkide-txartel edo "fidelizazio-txartel"ak bezeroei puntuak, deskontuak edo erosketengatiko abantailak metatzeko aukera ematen dietela. Ondoren, produktu, sustapen edo onura bereziekin truka ditzakete.

4.- En el presente asunto, se cuestiona si el hecho de que el personal trabajador del centro utilice sus tarjetas personales de fidelización para las compras destinadas al propio centro o a sus usuarios resulta ético ya que, de esta forma, los beneficios obtenidos por la utilización de esta tarjeta son para la persona trabajadora. Recordemos que estas tarjetas de socio, también llamadas de “fidelización” permiten a los clientes acumular puntos, descuentos o ventajas por sus compras, que posteriormente pueden canjear por productos, promociones o beneficios especiales.

EEB honek egin behar duen lehen gogoeta da gure iritzia kexan deskribatutako gertakariak eta Uliazpiren erantzuna soilik aztertuz emango dugula, eta egiaztatutako arau-hausterik dagoenik baieztatu gabe, EPJKen balioekin eta printzipioekin itxuraz kontraesanik edo tentsiorik egon litekeen zantzurik balego baino ez da baloratuko.

La primera consideración que esta CEI debe hacer es que daremos nuestra opinión analizando exclusivamente los hechos descritos en la queja y la respuesta de Uliazpi, y sin entrar a afirmar que exista una infracción acreditada, solo se valorará si pudieran existir indicios de una posible tensión o aparente

contradicción con los valores y principios del CEEP.

Hemen garrantzitsuena ez da onuraren zenbatekoa (*a priori* ez dirudi handia izan daitekeenik); aitzitik, EPJKek garrantzi handia ematen dio benetako interes-gatazkak saihesteari, bai eta funtzio publikoak gauzatzean lortutako onura pertsonalaren itxurak saihesteari ere.

Lo relevante aquí no es la cuantía del beneficio (que *a priori* no parece que pueda ser alto), sino que el CEEP pone mucho énfasis en evitar no sólo los conflictos de interés reales, sino también las apariencias de beneficio personal obtenido en el ejercicio de funciones públicas.

Zentzu horretan, eragin zuzenena duen balioa **Zintzotasuna eta Interesik eza** izango litzateke, honako hau baitio:

> ***2.3. Zintzotasuna eta Interesik eza***
> *a) Foru langile publikoaren jardunak* ***interes publikoa guztiz betetzera eta gipuzkoar herritar guztien interesetara bideratuko du.***
>
> *(…)*
>
> *d) Era berean,* ***ez dute betebehar ekonomikorik hartuko edo finantza edo ondare eragiketetan edo negozio juridikoetan parte hartuko pertsona edo erakundeekin interés gatazka sor daitekeenean****,* ***argia edo itxuraz****, langile publiko izaeratik sortutako jarduera profesionalekin lotuta.*
>
> *(…)*

En este sentido, el valor más directamente afectado sería en el de **Honestidad y el Desinterés**, que señala lo siguiente:

> ***Art. 3. Honestidad y Desinterés***
> *a) El empleado público foral dirigirá sus actuaciones* ***exclusivamente hacia el objetivo del pleno cumplimiento del interés público y de los intereses de la ciudadanía*** *guipuzcoana en su conjunto.*
>
> *(…)*
>
> *d) Del mismo modo,* ***no contraerán obligaciones económicas ni intervendrán en operaciones financieras o patrimoniales o en negocios jurídicos con personas o entidades cuando pueda suponer un conflicto de intereses****,* ***evidente o aparente****, en relación con las actividades profesionales derivadas de su condición de empleado público.*
>
> *(…)*

Langile batek puntuak, deskontuak, saldo metatua edo etorkizuneko abantailak lortzen baditu erabiltzaileentzat edo erakundearentzat berarentzat egindako erosketei esker, eztabaidatu ahal izango litzateke onura pribatu hori zuzenean bere enpleguagatik egindako jarduera batetik

Si un trabajador obtiene puntos, descuentos, saldo acumulado o ventajas futuras gracias a compras realizadas para usuarios o para la propia organización, podría discutirse si ese beneficio privado deriva directamente de una actuación realizada por razón de su empleo.

ote datorren. Gainera, gogoratu behar dugu EPJKek benetako gatazkak debekatzeaz gain, itxurak ere debekatzen dituela.

> *(…)*
>
> *f)* ***Interes gatazka zantzua ematen da*** *foru langile publikoak bere eskumenekoak diren gaiekin lotutako prozeduretan jarduteak edo esku hartzeak bere interes pertsonaletan, bere senideen interesean edo berarekin lotutako hirugarrenean, pertsona horiek nolabaiteko harreman mota izan duten enpresa edo erakundeen interesetan, eragina ez dutela uste duenean,* ***baina objektiboki jardun edo esku hartze horrek zuzenean eta modu larrian kaltetu dezakeenean herritarrek erakundeari buruz duten objektibotasun irudia***
>
> *(…)*

Nahiz eta langileak ez aukeratu merkataritza etekinak lortzeko, besteren diruarekin egindako erosketen bidez zuzenean eskuratzeak interes-gatazkaren itxura eman dezake objektiboki.

Era berean, kontuan hartu behar da EPJKek **Impartzialtasunari eta Objektibotasunari** buruz ezartzen duena:

> ***4. Impartzialtasuna eta Objektibotasuna***
>
> *(…)*
>
> *b) Foru langile publikoek euren jarduera publikoetan* ***objektibotasunez jardun beharko dute herritarren interes orokorren defentsan****. Horretarako, euren funtzioak burutzean horien bidez erakunde publiko edo pribatuei edo pertsona fisiko*

Además, debemos recordar que el CEEP no sólo prohíbe los conflictos reales, sino también las apariencias.

> *(…)*
>
> *f)* ***Existe apariencia de conflicto de interés*** *cuando el empleado público foral considera que su actuación o intervención en procedimientos relacionados con asuntos de su competencia no afecta a sus intereses personales, familiares o de terceras personas vinculadas con él, empresas o entidades en las que esas personas hayan tenido algún tipo de relación,* ***pero desde un punto de vista objetivo esa actuación o intervención puede dañar directa y gravemente la imagen de objetividad que la ciudadanía tiene de la institución****.*
>
> *(…)*

Aunque el trabajador no elija el comercio para obtener beneficios, el hecho de obtenerlos personalmente mediante compras efectuadas con dinero ajeno puede generar objetivamente una apariencia de conflicto de interés.

También debe tenerse en cuenta lo que el CEEP establece con relación a la **Objetividad e Imparcialidad**:

> ***Art. 4. Objetividad e Imparcialidad***
>
> *(…)*
>
> *b) Las y los empleados públicos forales en sus actuaciones públicas* ***deberán actuar con objetividad en defensa de los intereses generales de la ciudadanía****. A tal efecto,* ***evitarán*** *en el ejercicio de sus funciones todas aquellas prácticas y*

*zehatzei mesede-tratu edo **onura zuzena edo ez-zuzena** sor dezakeen jarduera batean arrazoitu gabeko edo objektibatu gabeko moduan eragina duten edo **susmoa edo irudia eman** dezaketen **praktika eta jardun guztiak ekidingo dituzte.***

(…)

*e) Langile publikoak **ezin izango du bere langile publikoko izaera erabili edozein motatako abantaila izateko edo nahi izateko, txikia bada ere**, erakunde publikoetan zein pribatuetan.*

(…)

"Onura zuzena edo ez-zuzena" esamoldea bereziki garrantzitsua da. Puntuek edo beherapenek azkenean langileari mesede egiten badiote, EPJKek saihestu nahi duen itxura hori sortzen dela esan daiteke. Eta puntuak edo deskontuak ULIAZPIren edo erabiltzaile baten izenean erosketak egiten ari delako bakarrik lor badaitezke, egoera profesional horri esker lortutako abantailarik ba ote dagoen plantea daiteke.

Bestalde, **Zuzentasuna**ren balioak langileentzat zuzeneko edo zeharkako edozein abantaila saihesteko ideia ere azpimarratzen du:

1. Zuzentasuna

(…)

d) Era berean, euren lanpostu publikoagatik edo euren funtzioak burutzean eragina izan

*actuaciones que afecten o **levanten cualquier sospecha** o apariencia de que a través de aquellas se puede incurrir de forma no objetivada ni motivada en una actividad que **genere o pueda hacerlo beneficio directo o indirecto** o trato de favor no justificado a entidades privadas o públicas o a personas físicas concretas.*

(…)

*e) El empleado público **tampoco podrán prevalerse de su condición de empleado público para la obtención o la pretensión de obtener cualquier tipo de ventaja, por mínima que fuere**, ya sea de entidades públicas o de carácter privado.*

(…)

La expresión "beneficio directo o indirecto" resulta especialmente relevante. Si los puntos o descuentos terminan beneficiando al trabajador, podría sostenerse que se genera precisamente esa apariencia que el CEEP pretende evitar. Y si la obtención de puntos o descuentos sólo es posible porque la persona está realizando compras en representación de ULIAZPI o de una persona usuaria, podría plantearse si existe una ventaja obtenida gracias a esa condición profesional.

Por otro lado, el valor de la **Integridad** también recalca la idea de evitar cualquier tipo de ventaja directa o indirecta para el personal:

Art. 1. Integridad

(…)

*d) Asimismo, desecharán radicalmente o **evitarán cualquier ventaja, directa o***

*dezakeen **edozein abantaila ukatu edo ekidingo dute, zuzena edo zeharkakoa**, edozein pertsona edo erakundeak proposatutakoa.*

(…)

Sakoneko galdera etikoa da ea deskontuak, puntuak edo fidelizazio-saldoak "zeharkako abantaila" diren. EPJKen irakurketa zabal batetik abiatuta, arrazoizkoa litzateke baietz esatea.

Azkenik, onura ekonomikoaren gaia alde batera utzita, ez da ahaztu behar EPJKek **Eredugarritasuna**ren balioari eta erakundearen irudia zaintzearen garrantziari buruz ezartzen duena:

2. Eredugarritasuna

(…)

*c) Foru langile publikoek, euren lanpostuetatik, euren erakundeetan giro etikoa sustatuko dute eta bertan lan egiten duten gainontzeko langileen erreferentzia izango dira, eta **inolaz ere ez dute erakundearen irudiari kalte egin diezaioketen jarrera izango edo jardunik egingo**. Zaintza etikoaren jarrera berezi hori, lidergo terminoetan, ardura lanpostuak dituzten eta euren menpe beste langile batzuk dituzten langile publikoek izan beharko dute.*

*d) Edozelan ere, saiatuko **dira euren jokabide eta jarrerek parte diren erakundearen legitimitatea indartzea, eta era berean, kalterik txikiena ere pairatzea saihestuko dute**.*

(…)

***indirecta**, que se les proponga o insinúe por parte de cualquier persona o entidad o que puedan obtener en razón del empleo público que ocupan o que pueda tener, mediatamente, influencia sobre el ejercicio de sus funciones*

(…)

La cuestión ética de fondo es si los descuentos, puntos o saldos de fidelización son una "ventaja indirecta". Desde una lectura amplia del CEEP, podría razonablemente sostenerse que sí.

Finalmente, al margen de la cuestión del beneficio económico, no hay que olvidar tampoco lo que el CEEP establece en torno al valor de la **Ejemplaridad** y la importancia de cuidar la imagen de la Institución:

Art. 2 Ejemplaridad

(…)

*c) Las y los empleados públicos forales, desde sus respetivos puestos de trabajo, promoverán en sus organizaciones un clima ético y servirán de referentes al resto del personal que en ellas trabaje, **no llevando a cabo**, en ningún caso, **conductas o actividades que puedan poner en perjuicio o menoscabar la imagen de la institución.***

*d) En todo caso, procurarán que **a través de sus conductas y comportamientos la institución a la que pertenecen refuerce su legitimidad y evitarán, asimismo, que sufra el más mínimo daño o erosión**.*

(…)

Praktika zabalduta edo normalizatuta egon arren, eta lortutako etekina kuantitatiboki mugatua izan daitekeela alde batera utzita, agerikoa da (aurkeztutako kexa ikusita) gizarte-pertzepzio negatiboa sortzen duela erabiltzaile kalteberentzako erosketetatik eratorritako onura langileen kontu partikularretan pilatzen denean.

Con independencia de que la práctica se encuentre extendida o normalizada, y de que el beneficio obtenido pueda resultar cuantitativamente limitado, es evidente (a la vista de la queja presentada) que genera una percepción social negativa cuando el beneficio derivado de compras destinadas a usuarios vulnerables termina acumulándose en cuentas particulares de las personas trabajadoras.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, eta ULIAZPIren erantzunak ez dirudiela salatutako egitate nagusia kategorikoki gezurtatzen duenik, badira arrazoizko oinarriak auzi etiko bat planteatzeko, bereziki aztertutako balioei dagokienez. Erabiltzailearentzat kuantifikatu daitekeen kalte ekonomikorik ez egon arren, EZSk ez du kalte ekonomikorik eskatzen kezka etiko bat hautemateko: nahikoa da enpleguagatik lortutako abantaila pertsonal bat edo interes-gatazka edo onura pribatuaren itxura izatea.

Teniendo en cuenta todo lo expuesto, y que la respuesta de ULIAZPI no parece desmentir categóricamente el hecho principal denunciado, existen fundamentos razonables para plantear una cuestión ética, especialmente respecto de los valores analizados. Incluso aunque no exista perjuicio económico cuantificable para la persona usuaria, el SII no exige la existencia de daño económico para apreciar una preocupación ética: basta con que exista una ventaja personal obtenida por razón del empleo o una apariencia de conflicto de interés o de beneficio privado.

Hala ere, adierazi behar da balorazio hori, hasieran aipatu bezala, ikuspegi hipotetiko eta etiko batetik egiten dela soilik, kexan deskribatutako gertakariak eta jasotako erantzuna erreferentziatzat hartuta. Salatutako egitateak egiaztatzeko nahikoa froga-elementurik ez dagoenez, egindako kontsiderazioak EZSren balioei eta printzipioei buruzko azterketa teoriko gisa baino ez dira ulertu behar, horiek eragina izan baitezakete praktikak adierazitako baldintzetan egingo balira.

Debe señalarse, no obstante, que esta valoración se realiza, como se ha mencionado al comienzo, exclusivamente desde una perspectiva hipotética y ética, tomando como referencia los hechos descritos en la queja y la respuesta recibida. Al no disponerse de elementos de prueba suficientes que permitan verificar los hechos denunciados, las consideraciones efectuadas deben entenderse únicamente como un análisis teórico acerca de los valores y principios del SII que podrían verse afectados si las

prácticas se desarrollaran en los términos indicados.

Beraz, hausnarketa hori ez da ULIAZPIko langileen ez-betetze etiko eraginkorrari buruzko ondorio bat, baizik eta zuzentasunaren, zintzotasunaren, eredugarritasunaren, inpartzialtasunaren eta erabiltzaileen interesen kudeaketa egokiaren ikuspegitik plantea litezkeen balizko arrisku etikoen balorazio bat, kontatutako gertakariak egiaztatuta baleude.

Por tanto, esta reflexión no constituye una conclusión sobre la existencia de un incumplimiento ético efectivo por parte del personal trabajador de ULIAZPI, sino una valoración de los posibles riesgos éticos que podrían plantearse desde la óptica de la integridad, la honestidad, la ejemplaridad, la imparcialidad y la adecuada gestión de los intereses de las personas usuarias, en el supuesto de que los hechos relatados resultaran acreditados.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2026ko irailaren 04ean

En virtud de todo ello, la Comisión de Ética Institucional adopta, por unanimidad, con fecha de 04 de septiembre del 2026, la siguiente

EBAZPENA[i]

Lehengoa. – Ez dago ebidentzia zehatzik Erakundearen Zuzentasun Sisteman ezarritakoa urratu dela egiaztatzeko.

Bigarrena.- Hala ere, Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea inspiratzen duten Zintzotasuna eta Interesik eza, Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna, Zuzentasuna eta Eredugarritasunaren balioetan oinarritutako konfiantza publikoa babesteko, egokitzat jotzen dugu sistemak aztertzea fidelizazio-onurak erabiltzaileari

RESOLUCIÓN[ii]

Primero. – No existen evidencias concretas de la vulneración de lo establecido en el Sistema de Integridad Institucional.

Segundo.- Sin embargo, para preservar la confianza pública basada en los valores de Honestidad y Desinterés, Imparcialidad y Objetividad, Integridad y Ejemplaridad que inspiran el Código Ético y de Buena Gestión del Empleo Público foral, consideramos adecuado estudiar sistemas para que los beneficios de fidelización se atribuyan a la persona usuaria o a ULIAZPI y, en caso de que no sea posible,

edo ULIAZPIri esleitzeko, eta, ezinezkoa bada, erosketa horietan langileen fidelizazio pertsonalerako txartelak ez erabiltzea, eta, horrela, jardueraren zuzentasunari buruzko edozein onura pribatu eta zalantza ezabatzea.

simplemente no se utilicen en estas compras las tarjetas de fidelización personales de las personas trabajadoras, eliminando así cualquier beneficio privado y cualquier duda sobre la integridad de la actuación.

Irune Berasaluze Lazkano
Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria
Presidenta de la Comisión de Ética Institucional

---

[i] Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoko Erakundearen Etika Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendua arautzen dituen maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretua aldatzen duen abenduaren 19ko 57/2023 Foru Dekretuaren 9. artikuluaren 13. atalak ezartzen duenaren arabera, hartutako ebazpenaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri administrazio-bidean edo administrazioarekiko auzibidean.

[ii] Según establece el apartado 13 del artículo 9 del Decreto Foral 57/2023, de 19 de diciembre, por el que se modifica el Decreto Foral 10/2022, de 3 de mayo, por el que se regula la organización, procedimiento y funcionamiento de la Comisión de Ética Institucional del sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la resolución adoptada no será recurrible en vía administrativa ni contencioso-administrativa.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Etika batzordeko ebazpena 07_26

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

BERASALUZE LAZKANO, IRUNE

FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL

Data / Fecha: 2026/09/10 14:47:59